

EBALUAZIO DIAGNOSTIKO ZENTSALA
2024-2025 IKASTURTEA
LH 4

HEZKUNTZAKO IKUSKAPEN ZERBITZUA
EBALUAZIO ATALA

AURKIBIDEA

1. Sarrera	4
1.1. Ebaluazioaren izaera zentsala; salbuespenak eta egokitzapenak	5
1.2. Matrikularen eta parte-hartzearen datuak	6
1.2.1 Datu globalak eta hizkuntza ereduaren arabera xehatutako datuak	6
1.2.2 Datuak generoaren arabera xehakatuta	6
1.2.3 Proba egin duten ikasleak, konpetentzien arabera banakatuta	6
1.2.4 Bertaratu ez diren ikasleak eta proba egin duten ikasleak, konpetentzien arabera banakatuta	7
2. Gaztelaniazko hizkuntza gaitasuna (GHG)	8
2.1 Probaren deskribapena	8
2.2 Galderak: informazioa	10
2.3 Emaitzak	11
2.3.1 Emaiza orokorrak	11
2.3.2 Emaitzak generoaren arabera	11
2.3.3 Gaitasun mailak	11
2.4 Puntuazioen banaketa	13
3. Euskarazko hizkuntza gaitasuna (EHG)	16
3.1 Probaren deskribapena	16
3.2 Galderak: informazioa	17
3.3 Emaitzak	19
3.3.1 Emaiza orokorrak	19
3.3.2 Emaitzak generoaren arabera	19
3.3.3 Gaitasun mailak	19
3.4 Puntuazioen banaketa	21
4. MATEMATIKARAKO GAITASUNA (MG)	24
4.1 Probaren deskribapena	24
4.2 Galderak: informazioa	25
4.3 Emaitzak	26
4.3.1 Emaiza orokorrak	26
4.3.2 Emaitzak generoaren arabera	26
4.3.3 Gaitasun mailak	26
4.4 Puntuazioen banaketa	28
5. INGELESEZKO HIZKUNTZA GAITASUNA (IHG)	30

5.1 Probaren deskribapena	30
5.2 Galderak: informazioa	31
5.3 Emaitzak	32
5.3.1 Emaiza orokorrak	32
5.3.2 Emaitzak generoaren arabera	33
5.3.3 Gaitasun mailak	33
5.4 Puntuazioen banaketa	34
6. ALDAGAI SOZIOEKONOMIKO ETA KULTURALA	36
6.1 ISEK lortzea eta erabiltzea	36
6.1.1 Erregresio-zuzena: GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA GAITASUNA	38
6.1.2 Erregresio-zuzena: EUSKARAZKO HIZKUNTZA GAITASUNA	38
6.1.3 Erregresio-zuzena: MATEMATIKARAKO GAITASUNA	39
6.1.4 Erregresio-zuzena: INGELESEZKO HIZKUNTZA KONPETENTZIA	39
6.2 ISEKaren banaketa	40
6.2.1 BANAKAKO PUNTUAZIOAK	40
6.2.2 IKASTETXEKO PUNTUAZIOAK	41

1. Sarrera

Hezkuntzako zuzendari nagusiak ekainaren 6an emandako 221/2024 Ebazpenean xedatuaren arabera, Hezkuntza Departamentuak ebaluazio diagnostikoa ezartzen du Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztientzat. Ebaluazio honek ondoko ezaugarriak ditu:

- Zentsala da, hau da, ikasle guztiek egin behar dute.
- Konpetentziala da, hau da, oinarrizko konpetentziak neurtzen ditu.
- Informazioa ematen die ikasleei eta haien familiei.
- Prestakuntzazkoa da eta orientabideak ematen ditu, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan laguntzeko.

2024-2025 ebaluazio diagnostiko zentsalak honako hauek izan ditu ardatz: irakas-hizkuntzetako konpetentzia linguistikoak (gaztelaniazko eta euskarazko konpetentzia linguistikoak), matematikarako konpetentzia eta ingelesezko konpetentzia linguistikoak.

Ebaluazio Atalak prestatu ditu errendimendu-probak, horretarako eratutako irakasle-taldeek egindako lanetik abiatuta. Hala, proba horiek kanpoko probak dira ikastetxeentzat. Probak egun berberetan egin dira ikastetxe guztietan eta aldeztu aurretik ezarritako irizpideen arabera zuzendu dira; irizpideak Atalak eman dituenak izan dira.

Ekainaren hasieran eskuratu zituzten ikastetxeek banakako txostenak (ikasle bakoitzaren emaitzekin) eta ikastetxearen txostena. Banakako txostenak familiei igorri zitzaizkien ikasturtea bukatu zenean. Txosten osoak datu estatistiko hauek ditu: batez besteko puntuazioa, desbideratze tipikoa, konpetentzia mailaren arabera ikasleen banaketa, galderetan zuzen erantzundakoen ehunekoak, ikastalde edo gela bakoitzeko batez besteko puntuazioa eta errendimenduaren eta ISEK aldagai sozioekonomikoaren arteko erregresioari buruzko informazioa. Ebaluatutako konpetentziaren arabera informazioa tauletan eta grafikoetan eman da.

Bestalde, ikastetxe bakoitzak aukera du azken urteetako emaitzen bilakaera aztertzeko, zuzendaritza taldeak Educa plataformaren bidez eskura dituen grafiko batzuen bitartez. Txosten horiek honako hauei buruzko informazioa ematen dute, konpetentzia bakoitzean: batez besteko puntuazio transformatu eta estimatuak ikastetxeka eta generoka, ekitate- eta bikaintasun-tasak, ISEK, ikasleen banaketa ikasmailaka, eta asmatze-ehunekoak itemeka, eduki-multzoka eta ebaluatutako prozesuka, urteetan zehar izandako bilakaera kontuan hartuta.

Txosten honek aurreko informazioa osatzen du Nafarroako Foru Komunitatearen ikuspegi orokor batetik abiatuta; izan ere, ikasle guztiak eta proben ezaugarriak ardatz gisa hartzen ditu. Agiri honetan garrantzi handia du konpetentzia mailen esanahiak eta galdera bakoitzean ebaluatutako prozesuaren identifikazioak. Ikasleen puntuazioen banaketa islatzen duten histogramak aurkeztu dira eta banaketa normalarekiko konparazioa egin da.

Halaber, ataletako batek aztertzen du ikastetxeen batez besteko errendimenduaren eta ISEKaren batez besteko balioaren arteko korrelazioa. Konpetentzia bakoitzari dagokion erregresio-zuzena irudikatzen da eta horri esker ikus daiteke zenbateko inpaktua edo eragina duen aldagai sozioekonomiko eta kulturalak ikastetxeen batez besteko errendimenduan.

1.1. Ebaluazioaren izaera zentsala; salbuespenak eta egokitzapenak

2024-2025 ikasturtean, Lehen Hezkuntzako 4. mailako matrikula, osotara, 7257 ikaslekoa izan zen. Ikasle horiei zuzendu zaie ebaluazio diagnostiko zentsala. Proba horretatik salbuesteko lau arrazoi daude:

- a) Hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituzten ikasleak, LHko 4. mailan daudenak Curriculum Egokitzapen Esanguratsurekin (CEE), bi urteko edo gehiagoko curriculum-atzerapenagatik.
- b) LHko 2. mailako Matematika eta/edo Hizkuntza (gaztelania A/G ereduan edo euskara D ereduan) arloei dagozkien ikaskuntzak gainditzeko errekonferentzia-planak egiten ari diren ikasleak.
- c) Hezkuntza sisteman berandu sartu diren ikasleak.
- d) Ikaskuntzarako hizkuntzaren ezezagutza handia duten ikasleak.

Irizpide horiek aplikatuta, 445 ikasle salbuetsi ziren, eta, beraz, proben azken populazioa 6812 ikasletan zehaztu zen. Proba bakoitza egiten den eguneko inguruabar zehatzek zehazten dute konpetentzia bakoitzean ebaluatutako ikasleen azken kopurua (datu zehatzak 1.2 atalean jasotzen dira).

Aurreko ikasturteetan egin zen bezala, Ebaluazio Atalak, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroarekin (NHBBZ) koordinatuta, probak egiteko egokitzapen pertsonalizatuak prestatu dituzte mugitzeko eta/edo ikusteko desgaitasuna duten hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleendako. Horretarako, harreman estua izan da ikastetxe bakoitzeko orientatzaileekin. Hurrengo taulan ageri dira probetarako egin diren egokitzapenak, hezkuntza premiaren mota aintzat hartuta.

	Egokitzapen mota	Ikastetxe kopurua
Ikusmen desgaitasuna	- Letra-tipoaren tamaina, lerroarteak, koloreak...	4 ikastetxe / 4 ikasle
Entzumen desgaitasuna	- Audio egokituak beste ikasleak baino errepikapen bat gehiagorekin	10 ikastetxe / 10 ikasle

1.2. Matrikularen eta parte-hartzearen datuak

Ondoko tauletan azaltzen dira izaera zentsala eta egindako ebaluazioaren zabaltasuna ikusarazten duten datuak.

1.2.1 Datu globalak eta hizkuntza ereduaren arabera xehatutako datuak

	DATU GLOBALAK		A/G ereduak		B/D ereduak	
Matrikula	7257	% 100	5380	% 75,14	1877	% 25,86
Salbuetsitako ikasleak	445	% 6,13	399	% 5,50	46	% 0,63
Azken populazioa	6812	% 93,87	4981	% 68,64	1831	% 25,23
	Ikasle kopurua	Ikasleen %	Ikasle kopurua	Ikasleen %	Ikasle kopurua	Ikasleen %

A/G eredueta salbuetsita dauden ikasleen kopurua (399) eredu horietan matrikulatutakoen % 7,42 da (5380); D/B eredueta salbuetsita dauden ikasleen kopurua (46) eredu horietan matrikulatutakoen % 2,45 da (1877).

1.2.2 Datuak generoaren arabera xehakatuta

	Neskak		Mutilak	
Matrikula	3503	% 48,27	3754	% 51,73
Salbuetsitako ikasleak	188	% 2,59	257	% 3,54
Azken populazioa	3315	% 45,68	3497	% 48,19
	Ikasle kopurua	Ikasleen %	Ikasle kopurua	Ikasleen %

Salbuetsitako neska ikasleen kopurua (188) matrikulatutako ikasleen % 5,37 da (3503); salbuetsitako mutil ikasleen kopurua (257) matrikulatutako ikasleen % 6,85 da (3754).

1.2.3 Proba egin duten ikasleak, konpetentzien arabera banakatuta

	Proba egin duten ikasleen kopurua	%
Gaztelaniazko hizkuntza konpetentzia ⁽¹⁾	6750	% 93,01
Euskarazko hizkuntza konpetentzia ⁽²⁾	1824	% 97,18
Matematikarako konpetentzia ⁽¹⁾	6744	% 92,93
Ingeleseko Hizkuntza konpetentzia ⁽¹⁾	6700	% 92,32

⁽¹⁾ Ehunekoa kalkulatzeko, matrikula osoa hartzen da kontuan (7257 ikasle).

⁽²⁾ Ehunekoa kalkulatzeko, D/B eredueta matrikula osoa hartzen da kontuan (1877 ikasle).

1.2.4 Bertaratu ez diren ikasleak eta proba egin duten ikasleak, konpetentzien arabera banakatuta

	Azken populazioa	Bertaratu ez diren ikasleen kopurua	Proba egin duten ikasleen kopurua	% ⁽¹⁾
Gaztelaniazko hizkuntza konpetentzia	6812	62	6750	% 99,09
Euskarazko hizkuntza konpetentzia	1831	7	1824	% 99,62
Matematikarako konpetentzia	6812	68	6744	% 99,00
Ingeleseko hizkuntza konpetentzia	6802	102	6700	% 98,50

⁽¹⁾ Ehunekoa, kasu bakoitzean, azken populazioaren gainean kalkulatzen da.

2. Gaztelaniazko hizkuntza gaitasuna (GHG)

2.1 Probaren deskribapena

Probak hiru atal ditu: ahozkoaren ulermena, irakurriaren ulermena eta ekoizpen idatzia.

Ahozkoaren ulermenerako "*Hansel y Gretel*" izeneko kontakizun baten narrazioa baliatu da; bederatzi galdera egin dira horren gainean.

Irakurriaren ulermenerako probak askotariko bi testu ditu. Horrek ziurtatzen du irakurmena formatu, tipologia edo genero batean baino gehiagotan neurtuko dela. Zehazki, honako testu hauek osatzen zuten proba: "*El paseo de un distraído*", testu jarraitu eta narratiboa, ipuin bat zehazki, eta "*Guía del Camino de Santiago*", etena eta azalpenezkoa. Lehen testutik 11 galdera aterata ziren eta bigarrenetik 9. Irakurriaren ulermenak, guztira, 20 galdera izan zituen.

Landu ziren atazek irakurketa-prozesuak neurtzeko balio dute, eta zenbait konpetentzia espezifikoekin eta oinarritzko jakintzarekin lotzen dira.

Idatzizko ekoizpena Done Jakue Bidearen ibilbidean egindako ibilaldi baten deskribapena izan da: paisaiak zein horiek eragiten zituzten sentazioak deskribatu behar ziren. Ikasleek zirriborroa edo eskema toki zehatz batean idatzi behar zuten. Horretaz gainera, beren idatzian sartu beharreko puntu batzuk eman zitzaizkien, nahi bazuten erabiltzeko eta, orobat, testua egituratzen laguntzeko. Idazketan honako alderdi hauek baloratu dira: plangintza, aurkezpena, ortografia, zuzentasun gramatikala, aberastasun lexikoa, egokitasuna, koherentzia eta kohesio-mekanismoak.

Trebetasunak honela banatu dira:

Trebetasuna	Puntuazioa	Haren pisua puntuazio osoan
Ahozkoaren ulermena	9	% 22
Irakurmena	22	% 53,6
Ekoizpen idatzia	10	% 24,3
GUZTIRA	41	% 100

Ondoko taulan, galdera bakoitzak izan duen asmatze-ehunekoa eta haren ezaugarriak agertzen dira: erantzun-motaren arabera tipologia, esleitutako gehieneko puntuazioa, ebaluatutako irakurketa-prozesua, baita zer konpetentzia espezifiko eta oinarritzko jakintza dagozkion ere. Galderen ordena bera da taulan eta probako koadernoan.

Zatia	Zk.	Item-mota	Gehieneko puntuazioa	asmatutako koen %	Kon. espezifikoa	Oinarritzko jakintzak	Ebaluatutako prozesua
Ahozkoaren ulermena	1	Erantzun itxia	1	% 87,13	KE 2	B3.2	Interpretatzea
Ahozkoaren ulermena	2	Erantzun itxia	1	% 61,37	KE 2	B3.2	Interpretatzea

Ahozkoaren ermen	3	Erantzun itxia	1	% 50,34	KE 2	B3.2 / A3	Interpretatzea
Ahozkoaren ermen	4	Erantzun itxia	1	% 35,24	KE 2	B3.2	Aurkitzea
Ahozkoaren ermen	5	Erantzun erdieraikia	1	% 6,83	KE 2	B3.2	Interpretatzea
Ahozkoaren ermen	6	Erantzun itxia	1	% 29,19	KE 2	B3.2	Interpretatzea
Ahozkoaren ermen	7	Erantzun itxia	1	% 85,21	KE 2	B3.2	Interpretatzea / Hausnartzea
Ahozkoaren ermen	8	Erantzun itxia	1	% 48,22	KE 2	B3.2	Interpretatzea
Irakurriaren ermen	9	Erantzun itxia	1	% 36,98	KE 2	B3.2	Hausnartzea
Irakurriaren ermen	10	Erantzun itxia	1	% 63,70	KE 4	A3 / B3.4	Interpretatzea
Irakurriaren ermen	11	Erantzun erdieraikia	1	% 89,11	KE 4	B3.4	Integratzea
Irakurriaren ermen	12	Erantzun itxia	1	% 65,32	KE 4	B3.4	Aurkitzea
Irakurriaren ermen	13	Erantzun itxia	1	% 63,20	KE 4	B3.4	Interpretatzea / Hausnartzea
Irakurriaren ermen	14	Erantzun itxia	1	% 69,18	KE 4	B3.4	Aurkitzea
Irakurriaren ermen	15	Erantzun itxia	1	% 55,13	KE 4	B3.4	Interpretatzea
Irakurriaren ermen	16	Erantzun itxia	1	% 18,74	KE 4	B3.4	Aurkitzea
Irakurriaren ermen	17	Erantzun itxia	1	% 68,16	KE 4	B3.4	Interpretatzea
Irakurriaren ermen	18	Erantzun itxia	2	% 73,48	KE 4	B3.4	Hausnartzea
Irakurriaren ermen	19	Erantzun itxia	1	% 33,33	KE 4	B3.4	Interpretatzea
Irakurriaren ermen	20	Erantzun itxia	1	% 52,19	KE 4	B3.4	Hausnartzea / Integratzea
Irakurriaren ermen	21	Erantzun itxia	1	% 65,6	KE 4	B3.4	Aurkitzea
Irakurriaren ermen	22	Erantzun itxia	2	% 60,86%	KE 4	B3.4	Aurkitzea
Irakurriaren ermen	23	Erantzun itxia	1	% 57,02	KE 4	B3.4	Interpretatzea
Irakurriaren ermen	24	Erantzun itxia	1	% 43,57	KE 4	B3.4	Interpretatzea
Irakurriaren ermen	25	Erantzun itxia	1	% 51,64	KE 4	B3.4	Interpretatzea
Irakurriaren ermen	26	Erantzun itxia	3	% 50,86	KE 4	B3.4	Interpretatzea
Irakurriaren ermen	27	Erantzun itxia	1	% 55,22	KE 4	B3.4 / B1.1	Interpretatzea
Irakurriaren ermen	28	Erantzun itxia	1	% 50,73	KE 4	B3.4	Hausnartzea
Irakurriaren ermen	29	Erantzun itxia	1	% 62,21	KE 4	B3.4 / B1.1	Integratzea
Idatzizko adierazpena	30	Irekia	10	% 62,05	KE5/ KE8/ KE9	B3.5/ B4/ B2/ C2.9/ D	Idatzizko adierazpena

2.2 Galderak: informazioa

Maila bereko ikasleek zailtasun jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta konplexuegiak iruditzen zaizkienetan huts egiten dute. Zailtasuna ondokoen arabera da: erreferentziako testuaren konplexutasuna, aktibatu beharreko ataza edo prozesu mota edo erantzun mota (itxia, erdieraikia edo irekia, eskatzen duena gauzak identifikatzea, lotzea, ordenatzea, hautatzea...). Aldi berean, elementu hauek guztiek konpetentzia mailak zehazten dituzte (haietan sartzen ditugu ikasleak). Irakurketa maila bakoitzaren azalpena 2.3.3. atalean dago.

Erantzun zuzenen ehunekorik txikiena duten galderek adierazten digute zein diren menderatu gabeko prozesuak eta atazak edo zein diren testurik zailenak. Hortaz hausnartu beharko litzateke irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan. Irakasleek galdera bakoitzaren azterketa xehatua dute, bai zuzenketa-koadernoetan, bai Hezkuntza Departamentuaren barne-plataforman. Informazio honek emaitzak testuinguruan jartzen ditu eta aukera ematen du ebaluazio diagnostikoak bultzatu behar dituen hausnarketa eta hobekuntza-proposamenak bideratzeko.

Aldi berean, galdera bakoitza diskriminazio indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu galdera hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du galdera zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Ondoko taulak probako galderen **diskriminazio indizea** erakusten du:

Galdera	Diskriminazio indizea	Galdera	Diskriminazio indizea
1	0,26	16	0,12
2	0,30	17	0,33
3	0,31	18	0,25
4	0,20	19	0,14
5	0,12	20	0,16
6	0,10	21	0,24
7	0,29	22	0,51
8	0,12	23	0,28
9	0,27	24	0,25
10	0,31	25	0,40
11	0,23	26	0,30
12	0,26	27	0,10
13	0,27	28	0,30
14	0,42	29	0,19
15	0,30	30	0,56

2.3 Emaitzak

2.3.1 Emaiza orokorrak

Guztira 6750 ikaslek egin dute **Gaztelaniazko hizkuntza gaitasuna** proba. Hona hemen bildutako datu orokorrak:

Egindako probak, guztira:	6750
Lortutako gutxieneko puntuazioa:	4,50
Lortutako gehieneko puntuazioa:	39,75
Batez besteko puntuazioa:	23,40
Desbideratze tipikoa:	5,99


Alderdi azpimarragarriak:

- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 4,50 izan da eta handiena 39,75 puntu.
- Desbideratze tipikoa 5.99 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 25,6), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun arina dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

2.3.2 Emaitzak generoaren arabera

Atal honetan, **Gaztelaniazko hizkuntza gaitasuna** proban lortutako emaitzak erakusten dira, ikasleen generoaren arabera bereizita.

	Zenbakia	Batez besteko puntuazioa	Desbideratze tipikoa
Neskak	3286	23,89	5,90
Mutilak	3464	22,95	6,04
Nafarroa	6750	23,40	6,02



Ikus daitekeenez, neskek lortutako batez besteko puntuazioa mutilek lortutakoa baino 0,94 puntu handiagoa da: alde hori arintzat jo daiteke, probaren desbideratze tipikoaren herena baino txikiagoa baita (5,99). Halaber, emakumeek lortutako emaitzen dispersioa gizonek lortutakoena baino txikiagoa da.

2.3.3 Gaitasun mailak

Ikasleek zuzen erantzun dituzten galderak aztertuz, jakin daiteke zer dakiten egiten eta zer ez dakiten ongi egiten. Horrela, lau konpetentzia maila ezartzen dira: *1. maila, 2. maila, 3. maila eta +3. maila*.

Horren arabera, ulertzen da 1. eta 2. mailetako ikasleek ez dutela lortu konpetentzia, eta 3. edo +3. mailakoek espero den konpetentzia maila dutela.

Oro har, maila bakoitzari lotutako konpetentziak honako hauek dira:


1. maila	2. maila	3. maila	+3. maila
Maila horretan dauden ikasleek uste baino hizkuntza-gaitasun askoz txikiagoa dute. Gai dira informazio literala eta lokalizatua ulertzeko. Arazoak dituzte, batez ere testu etenekin. Interpretazio-maila oso errazak eskatzen dituzten atazei erantzun diezaiekete, betiere testuaren ulermen orokorra edo inferentziak eskatzen ez badituzte. Ez dira testuaren edukiari edo formari buruz hausnartzeko gai, kanpoko ezagutzak ez dira nahikoak irakurtzen duenarekin elkarerraginean jartzeko. Idatzizko adierazpenak koherentzia- eta kohesio-arazoak dituzte, eta gramatika-akatsak egiten dituzte (komunztadura-arazoak, preposizioen erabilera...). Ortografia-akats larriak egiten dituzte.	Maila horretan dauden ikasleek uste baino hizkuntza-gaitasun txikiagoa dute. Informazio literala eta lokalizatua aurki dezakete, baita aldizkako testuetan ere. Interpretazio-maila oso errazak eskatzen dituzten atazei erantzun diezaiekete, baina ez dira inferentzia konplexuak egiteko gai. Testuaren zentzua uler dezakete, baina ulermen globalerako zailtasunak dituzte. Testuaren edukiari edo formari buruz hausnartzeko zenbait zailtasun dituzte. Batzuetan, irakurtzen dutenaren eta ezagutzen dutenaren arteko loturarik eza ulermenerako oztopo da. Beren idatzizko ekoizpenak hamar lerroko 5 ortografia-falta baino gehiago dituzte. Testuaren barne-kohesioko akatsak dituzte, eta perpausek oso oinarritzko egitura dute.	Maila horretako ikasleek konpetentzia lortu dute. Oso ondo moldatzen dira informazioa bilatzen, literala zein ez literala edo sakabanatua. Aldizkako testuetan informazioa nola banatzen den ulertzen dute. Testua oro har ulertzen dute. Interpretazio-maila onargarria erakusten dute, baita inferentziak sortzeko gaitasuna ere. Testu bat baloratzeko eta horri buruz hausnartzeko gai dira, eta testu horren datuak baliatzen dituzte haren edukia aplikatzeko beharrezkoa den informazio garrantzitsua ateratzeko. Bere idatzizko ekoizpenak 5 ortografia falta baino gutxiago ditu. Perpausak bata bestearekin ongi loturik daude. Maila honetan jada ez dira komunztadura-akatsak agertzen. Argi eta garbi bereizten dira ahozko kodea eta idatzizkoa.	Maila horretako ikasleek gaitasun handia lortu dute. Informazioa aurkitzeko gai dira, nahiz eta esplizituki adierazi ez edo sakabanatuta egon, testu-mota edozein dela ere. Ulermen global eta interpretazio maila altua erakusten dute, eta inferentziak egiteko gaitasun handia. Testu bat baloratzeko eta horri buruz hausnartzeko gai dira, eta testu horren datuak baliatzen dituzte haren edukia aplikatzeko beharrezkoa den informazio garrantzitsua ateratzeko. Beren idatzizko ekoizpenak oso ortografia falta gutxi ditu, eta tildeak ere behar bezala erabiltzen dituzte. Testu argiak dira, ondo antolatutak eta zentzu guztietan irakurtzeko modukoak. Maila hori aurrekoarekiko bereizten da barne-kohesioko baliabideen erabileran, erabilitako perpausen konplexutasun eta aberastasun sintaktikoan agertzen baita.

Mailen zenbakizko zehaztapena

Ikasleak maila jakin bati esleitzea proban lortzen den puntuazioaren arabera da.

Hurrengo taulan konpetentzia maila bakoitza zehazten duten puntuazio-tarteak eta maila bakoitzean dagoen Nafarroako ikasleen ehunekoa islatzen dira:

	Puntuazio- tarteak	Ikasleen ehunekoa
1. maila	[0, 16)	% 11,13
2. maila	[16, 20)	% 17,24
3. maila	[20, 31)	% 60,61
+3. maila	[31, 41]	% 11,02



Alderdi azpimarragarriak:


- Hamar ikasletik zazpik baino gehiagok (% 71,63) 3. maila edo +3. maila erdietsi dute; gai dira beraien eskolatzeko mailari dagozkion irakurketa prozesuak gauzatzeko. Hamar ikasletik batek baino zertxobait gehiagok (% 11,02) bikaintasun maila erdietsi du.
- Hamar ikasletik batek baino zertxobait gehiagok (% 11,13) neurri bereziak behar ditu, behe-beheko mailan dagoelako.
- Sei ikasletik bat (% 17,24) tarteko egoeran dago, ikasmailari dagozkion atazen parte bat egiten du.

2.4 Puntuazioen banaketa

Atal honetan, **Gaztelaniazko hizkuntza gaitasuna** proban lortutako zuzeneko puntuazioen banaketari erreparatuko diogu.

Ezkerreko taulan, proba honetan behatutako parametro estatistikoak erreplikatzeko ditugu, eta grafikoak lortutako zuzeneko puntuazioen banaketa islatzen du:

	GHG
Egindako probak	6750
Batez besteko puntuazioa	23,40
Desbideratze tipikoa	5,99
Asimetria	-0,11
Kurtosia	-0,39



Alderdi azpimarragarriak:

- Banaketa normalarekin alderatuta, puntuazioen banaketa izan da asimetrikoa ezker aldetik, eta ez hain zorrotza.
- Fisherren asimetria koefizientea $-0,11$ da, eta hori da asimetria ezkerrekoa izatearen arrazoia. Izan ere, batez bestekotik beherako puntuazioetan guztizko maiztasuna goikoetan baino txikiagoa da (% 49,53 vs % 50,47), eta aldakortasuna handiagoa.
- Fisherren kurtosi-koefizientea $-0,39$ da; horra zergatik den kamutsagoa (banaketa platikurtikoa), hau da, puntuazioen kontzentrazio txikiagoa dago batez bestekoaren inguruan.

3. Euskarazko hizkuntza gaitasuna (EHG)

3.1 Probaren deskribapena

Probak hiru atal eduki ditu: ahozkoaren ulermena, irakurriaren ulermena eta ekoizpen idatzia.

Ahozko ulermena kontakizun labur bat izan da, “Errinozeroa”, eta 8 galdera egin dira.

Irakurriaren ulermenerako probak era askotariko bi testu ditu. Horrek ziurtatzen du irakurmena formatu, tipologia edo genero batean baino gehiagotan neurtuko dela. Zehazki, honako testu hauek osatzen zuten proba: “Dinosauroak” izeneko testu jarraitua eta azalpenezkoa da, eta “Postreda” izeneko jarraibide-testu etena. Lehen testutik 9 galdera aterata ziren eta bigarrenetik 9 ere bai. Irakurriaren ulermenak, guztira, 18 galdera izan zituen.

Itemek zailtasun desberdinak izan dituzte. 26 item horiekin landu ziren atazek irakurketa-prozesu desberdinak neurtzen dituzte eta erantzun mota desberdinak eskatzen dituzte: irekia, erdieraikia eta itxia.

Idatzizko ekoizpenean ikasleek eskolako webgunean sarrera bat idatzi behar zuten inauterietako egunaren inguruan. Ikasleek zirriborroa edo eskema toki zehatz batean idatzi behar zuten. Horretaz gainera, beren idatzian sartu beharreko puntu batzuk eman zitzaizkien, nahi bazuten erabiltzeko eta, orobat, adierazi beharrekoa egituratzen laguntzeko. Idazketan honako alderdi hauek baloratu dira: plangintza, aurkezpena, ortografia, zuzentasun gramatikala, aberastasun lexikoa, egokitasuna, koherentzia eta kohesio-mekanismoak.

Trebetasunak honela banatu dira:

Trebetasuna	Puntuazioa	Haren pisua puntuazio osoan
Ahozkoaren ulermena	8	% 22,2
Irakurmena	18	% 50
Ekoizpen idatzia	10	% 27,8
GUZTIRA	36	% 100

Ondoko taulan, galdera bakoitzak izan duen asmatze-ehunekoa eta haren ezaugarriak agertzen dira: erantzun-motaren arabera tipologia, esleitutako gehieneko puntuazioa, ebaluatutako irakurketa-prozesua, baita zer kompetentzia espezifiko eta oinarritzko jakintza dagozkion ere. Galderen ordena bera da taulan eta probako koadernoan.

Zatia	Zk.	Item-mota	Gehieneko puntuazioa	Asmatutako en %	Kon. espezifikoa	Oinarritzko jakintzak	Ebaluatutako prozesua
Ahoz. ulermena	1	Itxia	1	% 72,37	KE 2	B2.3 / B1.1/ B3.2	Interpretatzea
Ahoz. ulermena	2	Itxia	1	% 64,36	KE 2	B3.2	Interpretatzea
Ahoz. ulermena	3	Erdieraikia	1	% 76,21	KE 2	B3.2	Aurkitzea
Ahoz. ulermena	4	Itxia	1	% 58,63	KE 2	B3.2	Aurkitzea / integratzea

Ahoz. ulermena	5	Itxia	1	% 77,62	KE 2	B3.2	Interpretatzea
Ahoz. ulermena	6	Itxia	1	% 65,84	KE 2	B3.2	Interpretatzea
Ahoz. ulermena	7	Itxia	1	% 64,80	KE 2	B3.2	Integratzea: ulermen globala.
Ahoz. ulermena	8	Itxia	1	% 62,66	KE 2	B3.2	Hausnartzea
Irakurriaren ulermena 1	9	Itxia	1	% 47,75	KE 4	B3.4	Aurkitzea
Irakurriaren ulermena 1	10	Erdieraikia	1	% 75,52	KE 4	B3.4	Interpretatzea
Irakurriaren ulermena 1	11	Itxia	1	% 29,88	KE 4	B3.4	Aurkitzea
Irakurriaren ulermena 1	12	Itxia	1	% 65,50	KE 4	B3.4	Interpretatzea
Irakurriaren ulermena 1	13	Erdieraikia	1	% 84,13	KE 4	B3.4	Aurkitzea
Irakurriaren ulermena 1	14	Itxia	1	% 52,36	KE 4	B3.4 / D.3	Integratzea / Aurkitzea
Irakurriaren ulermena 1	15	Itxia	1	% 62,88	KE 4	B3.4	Interpretatzea
Irakurriaren ulermena 1	16	Itxia	1	% 77,69	KE 4	B3.4	Aurkitzea
Irakurriaren ulermena 1	17	Itxia	1	% 55,37	KE 4	B3.4	Interpretatzea
Irakurriaren ulermena 2	18	Itxia	1	% 85,75	KE 4	B3.4	Integratzea: ulermen globala
Irakurriaren ulermena 2	19	Itxia	1	% 56,91	KE 4	B3.4	Hausnartzea
Irakurriaren ulermena 2	20	Itxia	1	% 84,48	KE 4	B3.4	Interpretatzea
Irakurriaren ulermena 2	21	Erdieraikia	1	% 74,73	KE 4	B3.4	Aurkitzea
Irakurriaren ulermena 2	22	Itxia	1	% 39,64	KE 4	B3.4	Aurkitzea
Irakurriaren ulermena 2	23	Itxia	1	% 58,22	KE 4	B3.4	Interpretatzea
Irakurriaren ulermena 2	24	Itxia	1	% 73,36	KE 4	B3.4	Aurkitzea
Irakurriaren ulermena 2	25	Erdieraikia	1	% 58,47	KE 4	B3.4	Integratzea: ulermen globala
Irakurriaren ulermena 2	26	Itxia	1	% 27,96	KE 4	B3.4/ B1.1/ D.4	Integratzea: ulermen globala
Idatzizko adierazpena	27	Irekia	10	% 62,29	KE 4 / KE 5	B1.1/ B2.3 / B3.5/ D.4 / D.5 / D.6/	-

3.2 Galderak: informazioa

Maila bereko ikasleek zailtasun jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta konplexuegiak iruditzen zaizkienetan huts egiten dute. Zailtasuna ondokoen arabera: da: erreferentziako testuaren konplexutasuna, aktibatu beharreko ataza edo prozesu mota edo galdera mota (itxia, erdieraikia edo irekia, eskatzen duena gauzak identifikatzea, lotzea, ordenatzea, hautatzea...). Aldi berean, elementu hauek guztiek konpetentzia mailak zehazten dituzte (haietan sartzen ditugu ikasleak). Irakurketa maila bakoitzaren azalpena 3.3. atalean dago.

Erantzun zuzenen ehunekorik txikiena duten galderek adierazten digute zein diren menderatu gabeko prozesuak eta atazak edo zein diren testurik zailenak. Hortaz hausnartu beharko litzateke irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan. Irakasleek galdera bakoitzaren azterketa xehatua dute, bai zuzenketa-koadernoetan, bai Hezkuntza Departamentuaren barne-plataforman. Informazio honek emaitzak testuinguruan jartzen ditu eta aukera ematen du ebaluazio diagnostikoak bultzatu behar dituen hausnarketa eta hobekuntza-proposamenak bideratzeko.

Aldi berean, galdera bakoitza diskriminazio indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu item hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du galdera zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Ondoko taulak probako galderen **diskriminazio indizea** erakusten du:

Galdera	Diskriminazio indizea	Galdera	Diskriminazio indizea
1	0,35	15	0,29
2	0,21	16	0,35
3	0,39	17	0,40
4	0,34	18	0,26
5	0,33	19	0,16
6	0,32	20	0,35
7	0,16	21	0,25
8	0,27	22	0,23
9	0,32	23	0,19
10	0,36	24	0,33
11	0,27	25	0,37
12	0,34	26	0,12
13	0,23	27	0,54
14	0,40		

3.3 Emaitzak

3.3.1 Emaiza orokorrak

Guztira 1824 ikaslek egin dute **Euskarazko hizkuntza gaitasuna** proba. Hona hemen bildutako datu orokorrak:

Egindako probak, guztira:	1824
Lortutako gutxieneko puntuazioa:	4,50
Lortutako gehieneko puntuazioa:	36
Batez besteko puntuazioa:	22,76
Desbideratze tipikoa:	5,61

Alderdi azpimarragarriak:


- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 4,50 izan da eta handiena 36 puntu.
- Desbideratze tipikoa 5,61 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 24,6), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun arina dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

3.3.2 Emaitzak generoaren arabera

Atal honetan, **Euskarazko hizkuntza konpetentzia** proban lortutako emaitzak erakusten dira, ikasleen generoaren arabera bereizita.

	Zenbakia	Batez besteko puntuazioa	Desbideratze tipikoa
Neskak	862	23,42	5,48
Mutilak	962	22,17	5,67
Nafarroa	1824	22,76	5,61

Generoaren arabera bereizitako batez besteko puntuazioak (EHG)



Ikus daitekeenez, neskek lortutako puntuazioa mutilek lortutakoa baino 1,25 puntu handiagoa da: alde hori arintzat jo daiteke, probaren desbideratze tipikoaren herena baino txikiagoa baita (5,61). Halaber, emakumezkoek lortutako emaitzen dispersioa gizonezkoek lortutakoena baino txikiagoa da.

3.3.3 Gaitasun mailak

Ikasleek zuzen erantzun dituzten galderak aztertuz, jakin daiteke zer dakiten egiten eta zer ez dakiten ongi egiten. Horrela, lau konpetentzia maila ezartzen dira: *1. maila, 2. maila, 3. maila eta +3. maila*.

Horren arabera, ulertzen da 1. eta 2. mailetako ikasleek ez dutela lortu konpetentzia, eta 3. edo +3. mailakoek espero den konpetentzia maila dutela.

Oro har, maila bakoitzari lotutako gaitasunak honako hauek dira:


1. maila	2. maila	3. maila	+3. maila
Maila horretan dauden ikasleek uste baino hizkuntza-gaitasun askoz txikiagoa dute. Gai dira informazio literala eta lokalizatua ulertzeko. Arazoak daude, batez ere testu etenekin. Interpretazio-maila oso errazak eskatzen dituzten atazei erantzun diezaiekete, betiere testuaren ulermen orokorra edo inferentziak eskatzen ez badituzte. Ez dira testuaren edukiari edo formari buruz hausnartzeko gai, kanpoko ezagutzak ez dira nahikoak irakurtzen duenarekin elkarerraginean jartzeko. ----- Idatzizko adierazpenean koherentzia- eta kohesio-arazoak dituzte, eta gramatika-akatsak egiten dituzte (komuntadura-arazoak, deklinabide-atzizkien erabilera...). Ortografia-akats larriak egiten dituzte.	Maila horretan dauden ikasleek uste baino hizkuntza-gaitasun txikiagoa dute. Informazio literala eta lokalizatua aurki dezakete, baita aldizkako testuetan ere. Interpretazio-maila oso errazak eskatzen dituzten atazei erantzun diezaiekete, baina ez dira inferentzia konplexuak egiteko gai. Testuaren zentzua uler dezakete, baina ulermen globalerako zailtasunak dituzte. Testuaren edukiari edo formari buruz hausnartzeko zenbait zailtasun dituzte. Batzuetan, irakurtzen dutenaren eta ezagutzen dutenaren arteko loturarik eza ulermenerako oztopo da. ----- Beren idatzizko ekoizpenak hamar lerroko 5 ortografia-falta baino gehiago ditu. Testuaren barne-kohesioko akatsak dituzte, eta perpausak oso oinarrizko egitura dute.	Maila horretako ikasleek konpetentzia lortu dute. Oso ondo moldatzen dira informazioa bilatzen, literala zein ez literala edo sakabanatua. Aldizkako testuetan informazioa nola banatzen den ulertzen dute. Testua oro har ulertzen dute. Interpretazio-maila onargarria erakusten dute, baita inferentziak sortzeko gaitasuna ere. Testu bat baloratzeko eta horri buruz hausnartzeko gai dira, eta testu horren datuak baliatzen dituzte haren edukia aplikatzeko beharrezkoa den informazio garrantzitsua ateratzeko. ----- Beren idatzizko ekoizpenak 5 ortografia falta baino gutxiago ditu. Perpausak bata bestearekin ongi loturik daude. Maila honetan jada ez dira komuntadura-akatsak agertzen. Ahozko kodea eta idatzizkoa argi eta garbi bereizten dituzte.	Maila horretako ikasleek gaitasun handia lortu dute. Informazioa aurkitzeko gai dira, nahiz eta esplizituki adierazi ez edo sakabanatuta egon, testu-mota edozein dela ere. Ulermen global eta interpretazio maila altua erakusten dute, eta inferentziak egiteko gaitasun handia. Testu bat baloratzeko eta horri buruz hausnartzeko gai dira, eta testu horren datuak baliatzen dituzte haren edukia aplikatzeko beharrezkoa den informazio garrantzitsua ateratzeko. Beren idatzizko ekoizpenak oso ortografia falta gutxi dituzte. Testu argiak dira, ondo antolatutak eta zentzu guztietan irakurtzeko modukoak. Maila hori aurrekoarekiko bereizten da barne-kohesioko baliabideen erabileran, sortutako perpausen konplexutasun eta aberastasun sintaktikoan agertzen dena.

Mailen zenbakizko zehaztapena

Ikasleak maila jakin bati esleitzea proban lortzen den puntuazioaren arabera da.

Hurrengo taulan konpetentzia maila bakoitza zehazten duten puntuazio-tarteak eta maila bakoitzean dagoen Nafarroako ikasleen ehunekoa islatzen dira:

	Puntuazio-tarteak	Ikasleen ehunekoa
1. maila	[0, 15)	% 8,94
2. maila	[15,20]	% 21,77
3. maila	[20,30]	% 58,99
+3. maila	[30,36]	% 10,31



Alderdi azpimarragarriak:


- Hamar ikasletik ia zazpik (% 69,3) 3. maila edo 3.+ maila erdietsi dute; gai dira beraien eskolatzeko mailari dagozkion irakurketa prozesuak gauzatzeko. Hamar ikasletik batek (% 10,31) bikaintasun maila erdietsi du.
- Hamar ikasletik batek baino zertxobait gutxiagok (% 8,94) neurri bereziak behar ditu, behe-beheko mailan dagoelako.
- Bost ikasletik bat baino zertxobait gehiago (% 21,77) tarteko egoeran dago, ikasmailari dagozkion atazen parte bat egiten du.

3.4 Puntuazioen banaketa

Atal honetan, **Euskarazko hizkuntza gaitasuna** proban lortutako zuzeneko puntuazioen banaketari erreparatuko diogu.

Ezkerreko taulan, proba honetan behatutako parametro estatistikoak erreplikatzeko ditugu, eta grafikoak lortutako zuzeneko puntuazioen banaketa islatzen du:

	EHG
Egindako probak	1824
Batez besteko puntuazioa	22,76
Desbideratze tipikoa	5,61
Asimetria	-0,24
Kurtosia	-0,37



Alderdi azpimarragarriak:

- Banaketa normalarekin alderatuta, puntuazioen banaketa izan da zertxobait asimetrikoa ezker aldetik, eta zerbait kamutsagoa.
- Fisherren asimetria koefizientea -0,24 da, eta hori da asimetria ezkerrekoa izatearen arrazoia. Izan ere, batez bestekotik beherako puntuazioetan guztizko maiztasuna goikoetan baino txikiagoa da (% 49,07 vs % 50,93), eta aldakortasuna handiagoa.
- Fisherren kurtosi koefizientea -0,37 da; horra zergatik den kamutsagoa (banaketa platikurtikoa), hau da, puntuazioen kontzentrazio txikiagoa dago batez bestekoaren inguruan.

4. MATEMATIKARAKO GAITASUNA (MG)

4.1 Probaren deskribapena

Proba kalkulu mentaleko ariketa batek eta bi estimulu edo egoerak osatu dute, *“Baztan”* eta *“Litxarrerriak”* izenekoak: lehenengotik hamahiru galdera ateratzen ziren, eta bigarrenetik sei.

Egin ziren atazak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko irakurketa prozesuekin daude loturik. Hurrengo taulan erakusten dira probako galderen zenbait ezaugarri: tipologia (irekia edo itxia), gehienez esleitutako puntuazioa, ebaluatutako prozesu matematikoa, eta galdera bakoitza zein oinarritzko jakintzari dagokion. Galderen ordena bera da taulan eta probako koadernoan.

Zk.	Item-mota	Gehienezko puntuazioa	Asmatutako %	Konp. espezifikoa	Ebaluatutako prozesua	Oinarritzko jakintzak
1	Erantzun irekia	3	67,28%	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea	Zenbakizko zentzua
2	Erantzun itxia	1	66,96%	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea	Zenbakizko zentzua
3	Erantzun itxia	1	72,33%	Komunikazio eta irudikapena	Ezagutzea eta erreproduzitzea	Zentzu espaziala
4	Erantzun irekia	2	55,74%	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea	Zenbakizko zentzua
5	Erantzun irekia	2	66,07%	Arrazoitzea eta probatzea	Arrazoitzea eta hausnartzea	Zenbakizko zentzua
6	Erantzun itxia	1	73,25%	Komunikazio eta irudikapena	Ezagutzea eta erreproduzitzea	Zentzu espaziala
7	Erantzun itxia	1	54,34%	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea	Neurriaren zentzua
8	Erantzun itxia	1	55,25%	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea	Neurriaren zentzua
9	Erantzun itxia	1	42,87%	Komunikazio eta irudikapena	Ezagutzea eta erreproduzitzea	Zentzu espaziala
10	Erantzun erdieraikia	1	36,83%	Loturak	Arrazoitzea eta hausnartzea	Zenbakizko zentzua
11	Erantzun itxia	1	64,84%	Komunikazio eta irudikapena	Ezagutzea eta erreproduzitzea	Zentzu espaziala
12	Erantzun erdieraikia	2	61,13%	Arrazoitzea eta probatzea	Arrazoitzea eta hausnartzea	Neurriaren zentzua
13	Erantzun erdieraikia	2	87,82%	Komunikazio eta irudikapena	Ezagutzea eta erreproduzitzea	Zentzu estokastikoa
14	Erantzun itxia	1	88,78%	Arrazoitzea eta probatzea	Arrazoitzea eta hausnartzea	Zentzu estokastikoa
15	Erantzun irekia	2	45,88%	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea	Zenbakizko zentzua
16	Erantzun irekia	1	55,69%	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea	Zenbakizko zentzua
17	Erantzun itxia	1	54,52%	Komunikazio eta irudikapena	Ezagutzea eta erreproduzitzea	Zenbakizko zentzua
18	Erantzun itxia	1	55,60%	Problemak ebaztea	Aztertzea eta Aplikatzea	Zenbakizko zentzua
19	Erantzun irekia	2	67,38%	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea	Zenbakizko zentzua
20	Erantzun itxia	1	48,21%	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea	Zenbakizko zentzua

4.2 Galderak: informazioa

Maila bereko ikasleek zailtasun jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta konplexuegiak iruditzen zaizkienetan huts egiten dute. Zailtasuna erreferentziazko edukiaren arabera da, esparru bat baino gehiago nahasten ote dituen, zer prozesu mota ebaluatzen den, informazioa nola aurkezten den (zenbakietan, benetako egoeretan, modu esplizituan gutxiago edo gehiago, grafikoetan, plano batean...), zein galdera mota den (itxia edo irekia, galdera batekoa edo gehiagokoa den, urrats bakarra edo gehiago egin behar diren...). Aldi berean, elementu hauek guztiek konpetentzia mailak zehazten dituzte (haietan sartzen ditugu ikasleak). Matematikarako konpetentziaren maila bakoitzaren azalpena 4.3. atalean dago.

Erantzun zuzenen ehunekorik txikiena duten galderak adierazten digute zein diren menderatu gabeko prozesuak eta atazak. Hortaz hausnartu beharko litzateke irakaskuntza prozesuan. Irakasleek galdera bakoitzaren azterketa xehatua dute, bai zuzenketa-koadernoetan, bai Hezkuntza Departamentuaren barne-plataforman (erantzun mota, zein konpetentzia espezifikori dagokion, ebaluatutako prozesua eta oinarrizko jakintzak). Informazio honek emaitzak testuinguruan jartzen ditu eta ebaluazio diagnostikoak bultzatu behar duen prozesu hau -hausnartu eta hobekuntzak proposatzekoa- bideratu behar du.

Azterketa- eta hausnarketa-prozesuan, adibidez, ikasleen erdiek baino gehiagok behar bezala ebatzi ez dituzten galderen kopuruari erantzun dakioke, horien izaera azter daiteke (galdera mota, ebaluatutako prozesua, inplikaturako oinarrizko jakintza...). Galdera irekiak zailagoak dira, ikasleek egoera eta ematen zaien informazioa eta eskatzen zaien informazioa zein den ulertu behar baitute eta, orobat, egoera hori matematikoki planteatu eta eragiketak zuzen egin. Halako ohartarazpenetatik abiatuta zehatz dezakegu zer prozesuk, edukik eta ataza motak eskatzen duten irakasleen arreta handiagoa.

Aldi berean, galdera bakoitza diskriminazio indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu galdera hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du galdera zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Ondoko taulak probako galderen **diskriminazio indizea** erakusten du:

Galdera	Diskriminazio indizea	Galdera	Diskriminazio indizea
1	0,66	12	0,35
2	0,40	13	0,35
3	0,28	14	0,26
4	0,45	15	0,27
5	0,49	16	0,52
6	0,30	17	0,38
7	0,29	18	0,25
8	0,45	19	0,41
9	0,06	20	0,53
10	0,52	21	0,44

4.3 Emaitzak

4.3.1 Emaiza orokorrak

Guztira 6744 ikaslek egin dute **Matematikarako gaitasuna** proba. Hona hemen bildutako datu orokorrak:

Egindako probak, guztira:	6744
Lortutako gutxieneko puntuazioa:	2,25
Lortutako gehieneko puntuazioa:	28
Batez besteko puntuazioa:	17,39
Desbideratze tipikoa:	5,66

Alderdi azpimarragarriak:


- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 2,25 izan da eta handiena 28 puntu.
- Desbideratze tipikoa 5,66 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 32,5), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun moderatua dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

4.3.2 Emaitzak generoaren arabera

Atal honetan, **Matematikarako gaitasuna** proban lortutako emaitzak erakusten dira, ikasleen generoaren arabera bereizita.

	Zenbakia	Batez besteko puntuazioa	Desbideratze tipikoa
Neskak	3285	16,59	5,77
Mutilak	3459	18,16	5,44
Nafarroa	6744	17,39	5,66

Generoaren arabera bereizitako batez besteko puntuazioak (MG)



Ikus daitekeenez, mutilek lortutako batez besteko puntuazioa neskek lortutakoa baino 1,57 puntu handiagoa da: alde hori arintzat jo daiteke, probaren desbideratze tipikoaren herena baino txikiagoa baita (5,66). Mutilek lortutako batez bestekoa handiagoa da neskek lortutakoa baino, eta gizonezkoek lortutako emaitzen sakabanaketa txikiagoa da emakumezkoek lortutakoa baino.

4.3.3 Gaitasun mailak

Ikasleek zuzen erantzun dituzten galderak aztertuz, jakin daiteke zer dakiten egiten eta zer ez dakiten ongi egiten. Horrela, lau konpetentzia maila ezartzen dira: *1. maila, 2. maila, 3. maila eta +3. maila*.

Horren arabera, ulertzen da 1. eta 2. mailetako ikasleek ez dutela lortu konpetentzia, eta 3. edo +3. mailakoek espero den konpetentzia maila dutela.

Oro har, maila bakoitzari lotutako konpetentziak honako hauek dira:


1. maila	2. maila	3. maila	+3. maila
Maila honetako ikasleek matematikarako gaitasunaren maila baxua erakusten dute. Oso galdera gutxiri erantzun diote zuzen. Aurreko zikloko oinarrizko kalkuluak egiteko gai dira. Ez dute egoera ulertzen eta beharrezkoak diren datuak ez dituzte behar bezala ateratzen. Ez dira gai bi urrats eskatzen dituzten problemak ebazteko, ezta arrazoiketa matematikoa eskatzen dutenak ere. Ez dituzte ulertzen proportzionaltasuna adierazten duten egoerak. Ez dute zatikiak erabiltzen. Denboraren kalkuluarekin eta txanponen balioarekin arazoak dituzte. Ez dituzte bizitza errealeko irudi geometrikoak identifikatzen. Ez dira grafiko edo taula bat ulertzeko gai. Simetria identifikatzeko arazoak dituzte.	Maila horretan dauden ikasleek espero den gaitasunaren azpitik dagoen maila erausten dute. Galdera errazenei erantzuten diete. Oinarrizko kalkuluak egiteko gai dira, oraindik 1. zikloari dagozkionak. Ez dute egoera ulertzen eta beharrezkoak diren datuak ez dituzte behar bezala ateratzen. Ez dira gai bi urrats eskatzen dituzten problemak ebazteko, ezta arrazoiketa matematikoa eskatzen dutenak ere. Ez dituzte ulertzen proportzionaltasuna adierazten duten egoerak. Ez dute zenbaki zatikaturik erabiltzen. Zailtasunak dituzte denbora eta txanponen balioa kalkulatzeko. Ez dituzte beti identifikatzen bizitza errealeko irudi geometrikoak. Grafiko bat aurkezten dute euskarri eta adibideekin, eta taula oso errazak interpretatzen dituzte. Planoko simetria ulertzen dute.	Ikasleek ikasturte honetan espero den gaitasuna lortzen dute. Oinarrizko kalkuluak menderatzen dituzte, eta, gainera, ezagutza jakin batzuk aplikatzeko gai dira, testuinguru errealei buruzko egoerak ebazteko. Zenbakizko informazio gutxi duten arren, arrazoiketa logiko-matematikoa eskatzen duten egoera bat ulertzen dute. Era berean, bi urrats eskatzen dituzten buruketak ebazten dituzte. Proportzionaltasun-egoerak ulertzen dituzte eta zatikizko zenbakiak erabiltzen dituzte; oso eguneroko egoerei buruzko denbora-kalkulu errealeak egiten dakite; bizitza errealeko irudi geometrikoak identifikatzeko gai dira; txanponen balioa ezagutzen dute eta ondo moldatzen dira haiekin. Grafikoetan adierazitako informazioa zuzen interpretatu eta irudikatzen dute. Espazioan maneiatzen dira eta simetria ezagutzen dute.	Konpetentzia oso ondo menderatzen dutela erakusten dute. Oinarrizko kalkuluak menderatzen dituzte, eta, gainera, ezagutza jakin batzuk aplikatzeko gai dira, testuinguru errealei buruzko egoerak ebazteko. Egoera ulertzen dute, behar duen informazioa ateratzen dute eta planteamendu matematikoari ekiteko gai dira, arrazoiketa matematikoa egokitzen dute alde aurreko baldintzen arabera. Gutxienez bi urrats eskatzen dituzten buruketak ebazten dituzte, Proportzionaltasun-egoerak ulertzen dituzte eta zatikizko zenbakiak erabiltzen dituzte; denbora-kalkulu errealeak egiten dakite. Bizitza errealean irudi geometrikoak identifikatzeko gai dira. Txanponen balioa ezagutzen dute eta ondo moldatzen dira haiekin. Grafikoetan adierazitako informazioa zuzen interpretatu eta irudikatzen dute. Espazioan maneiatzen dira eta simetria ezagutzen dute.

Mailen zenbakizko zehaztapena

Ikasleak maila jakin bati esleitzea proban lortzen den puntuazioaren arabera da.

Hurrengo taulan konpetentzia maila bakoitza zehazten duten puntuazio-tarteak eta maila bakoitzean dagoen Nafarroako ikasleen ehunekoa islatzen dira:

	Puntuazio-tarteak	Ikasleen ehunekoa
1. maila	[0, 10)	% 11,30
2. maila	[10,14)	% 16,43
3. maila	[14, 25)	% 62,28
+3. maila	[24,28]	% 9,99



Alderdi azpimarragarriak:


- Hamar ikasletik zazpik (% 72,27) 3. maila edo +3. maila erdietsi dute; gai dira beren eskolatzeko mailari dagozkion matematika prozesuak gauzatzeko. Hamar ikasletik batek (% 9,99) erdietsi du bikaintasun maila.
- Hamar ikasletik batek baino zertxobait gutxiagok (% 11,30) neurri bereziak behar ditu, behe-beheko mailan dagoelako.
- Sei ikasletik bat (% 16,43) tarteko egoeran dago, ikasmailari dagozkion atazen parte bat egiten dute.

4.4 Puntuazioen banaketa

Atal honetan, **Matematikarako gaitasuna** proban lortutako zuzeneko puntuazioen banaketari erreparatuko diogu.

Ezkerreko taulan, proba honetan behatutako parametro estatistikoak erreplikatzeko ditugu, eta grafikoak lortutako zuzeneko puntuazioen banaketa islatzen du:

	MG
Egindako probak	6744
Batez besteko puntuazioa	17,39
Desbideratze tipikoa	5,66
Asimetria	-0,23
Kurtosia	-0,81



Alderdi azpimarragarriak:

- Banaketa normalarekin alderatuta, puntuazioen banaketa izan da asimetrikoa ezker aldetik, eta ez hain zorrotza.
- Fisherren asimetria koefizientea $-0,23$ da, eta hori da asimetria ezkerrekoa izatearen arrazoia. Izan ere, batez bestekotik beherako puntuazioetan guztizko maiztasuna goikoetan baino txikiagoa da (% $46,78$ vs % $53,22$), eta aldakortasuna handiagoa.
- Fisherren kurtosi koefizientea $-0,81$ da; horra zergatik den kamutsagoa (banaketa platikurtikoa), hau da, puntuazioen kontzentrazio txikiagoa dago batez bestekoaren inguruan.

5. INGELESEZKO HIZKUNTZA GAITASUNA (IHG)

5.1 Probaren deskribapena

Probak hiru trebetasunetako itemak izan ditu: ahokoaren ulermena (*Listening*), 10 galderarekin; irakurriaren ulermena (*Reading*), 17 galderarekin, eta idazmena (*Writing*), jarraibide batzuei segituz testu txiki bat idazteko lanarekin. Irakurriaren ulermena, berriz, bi zatitan banatzen da: "*Hero dog*" (*Reading 1*), testu jarraitua, eta "*Summer camps*" (*Reading 2*), testu etena.

Hizkuntza trebetasun horiek pisu desberdina dute puntuazio osoaren barnean; hona puntuazio horiek:

Trebetasuna	Puntuazioa	Zenbat balio duen, puntuazio osoarekin alderaturik
Listening	10	% 25.6
Reading	19	% 48.7
Writing	10	% 25.6
GUZTIRA	39	% 100

Hogeita zortzi galderekin landu ziren atazek prozesu kognitiboak neurtzeko balio dute, eta erantzun mota desberdinak eskatzen dituzte. Ondoko taulan, ezaugarri horiek erakusten dira galdera bakoitzerako, eta lortutako asmatze-ehunekoa eta bakoitzari dagokion gehieneko puntuazioa gehitzen dira. Galderen ordena bera da taulan eta probako koadernoan.

Zatia	Zk.	Itxia	Gehieneko puntuazioa	asmatut akoen %	Konp. espezifi koa	Ebaluatutako prozesua	Oinarrizko jakintzak
<i>Listening</i>	1	Itxia	1	% 29,31	KE 1	Aurkitzea	A.2/ A.6/ A.7/ A.8
<i>Listening</i>	2	Itxia	1	% 44,75	KE 1	Aurkitzea	A.2/ A.6/ A.7/ A.8
<i>Listening</i>	3	Itxia	1	% 49,42	KE 1	Aurkitzea	A.2/ A.6/ A.7/ A.8
<i>Listening</i>	4	Itxia	1	% 33,42	KE 1	Interpretatzea	A.2/ A.6/ A.7/ A.8
<i>Listening</i>	5	Itxia	1	% 57,91	KE 1	Interpretatzea	A.2/ A.6/ A.7/ A.8
<i>Listening</i>	6	Itxia	1	% 54,55	KE 1	Aurkitzea	A.2/ A.6/ A.7/ A.8
<i>Listening</i>	7	Itxia	1	% 41,43	KE 1	Aurkitzea	A.2/ A.6/ A.7/ A.8
<i>Listening</i>	8	Itxia	1	% 40,93	KE 1	Aurkitzea	A.2/ A.6/ A.7/ A.8
<i>Listening</i>	9	Itxia	1	% 38,10	KE 1	Ulermen globala	A.2/ A.6/ A.7/ A.8
<i>Listening</i>	10	Erdi-eraikia	1	% 51,21	KE 1	Interpretatzea	A.2/ A.6/ A.7/ A.8
<i>Reading 1</i>	11	Itxia	1	% 73,13	KE 1	Aurkitzea	A.2/ A.5/ A.6/ A.7
<i>Reading 1</i>	12	Itxia	1	% 59,69	KE 1	Aurkitzea / hausnartzea	A.2/ A.5/ A.6/ A.7
<i>Reading 1</i>	13	Itxia	1	% 73,90	KE 1	Aurkitzea	A.2/ A.5/ A.6/ A.7

Reading 1	14	Itxia	1	% 53,03	KE 1	Aurkitzea	A.2/ A.5/ A.6/ A.7
Reading 1	15	Itxia	1	% 40,06	KE 1	Interpretatzea	A.2/ A.5/ A.6/ A.7
Reading 1	16	Erdi-eraikia	1	% 27,51	KE 1	Aurkitzea	A.2/ A.5/ A.6/ A.7
Reading 1	17	Itxia	1	% 61,76	KE 1	Aurkitzea	A.2/ A.5/ A.6/ A.7
Reading 1	18	Itxia	1	% 40,09	KE 1	Interpretatzea	A.2/ A.5/ A.6/ A.7
Reading 1	19	Itxia	1	% 43,34	KE 1	Interpretatzea	A.2/ A.5/ A.6/ A.7
Reading 1	20	Itxia	1	% 34,49	KE 1	Ulermen globala	A.2/ A.5/ A.6/ A.7
Reading 1	21	Itxia	1	% 32,36	KE 1	Ulermen globala	A.2/ A.5/ A.6/ A.7
Reading 2	22	Erdi-eraikia	1	% 60,75	KE 1	Aurkitzea	A.2/ A.5/ A.6/ A.7/ C.4
Reading 2	23	Itxia	1	% 55,81	KE 1	Interpretatzea	A.2/ A.5/ A.6/ A.7/ C.4
Reading 2	24	Itxia	1	% 47,55	KE 1	Aurkitzea	A.2/ A.5/ A.6/ A.7/ C.4
Reading 2	25	Erdi-eraikia	1	% 65,55	KE 1	Aurkitzea	A.2/ A.5/ A.6/ A.7/ C.4
Reading 2	26	Itxia	2	% 55,93	KE 1	Interpretatzea	A.2/ A.5/ A.6/ A.7/ C.4
Reading 2	27	Itxia	2	% 48,42	KE 1	Interpretatzea	A.2/ A.5/ A.6/ A.7/ C.4
Writing	28	Ireki a	10	% 55,09	KE 2/ KE 3	Idazmena	A.4/ A.5/ C.4

5.2 Galderak: informazioa

Maila bereko ikasleek zailtasun jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta konplexuegiak iruditzen zaizkienetan huts egiten dute. Zailtasuna ondokoen arabera da: neurtzen den trebetasuna, erreferentziako testuaren konplexutasuna, aktibatu beharreko ataza edo prozesu mota edo galdera mota (itxia, erdieraikia edo irekia, eskatzen duena gauzak identifikatzea, lotzea, ordenatzea, hautatzea...). Aldi berean, elementu hauek guztiek konpetentzia mailak zehazten dituzte (haietan sartzen ditugu ikasleak). Ingeleseko hizkuntza konpetentziaren maila bakoitzaren azalpena 5.3. atalean dago.

Erantzun zuzenen ehunetik txikiena duten galderek adierazten digute zein diren menderatu gabeko prozesuak eta atazak edo zein diren testurik zailenak. Hortaz hausnartu beharko litzateke irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan. Irakasleek galdera bakoitzaren azterketa xehatua dute, bai zuzenketa-koadernoetan, bai Hezkuntza Departamentuaren barne-plataforman. Informazio honek emaitzak testuinguruan jartzen ditu eta ebaluazio diagnostikoak bultzatu behar duen prozesu hau -hausnartu eta hobekuntzak proposatzekoa-bideratu behar du.

Aldi berean, galdera bakoitza diskriminazio indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu galdera hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du galdera zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Ondoko taulak probako galderen **diskriminazio indizea** erakusten du:

Galdera	Diskriminazio indizea	Galdera	Diskriminazio indizea
1	0,48	15	0,39
2	0,37	16	0,45
3	0,24	17	0,43
4	0,25	18	0,31
5	0,41	19	0,45
6	0,44	20	0,42
7	0,34	21	0,08
8	0,21	22	0,46
9	0,27	23	0,40
10	0,40	24	0,44
11	0,32	25	0,49
12	0,33	26	0,29
13	0,36	27	0,44
14	0,30	28	0,64

5.3 Emaitzak

5.3.1 Emaiza orokorrak

Guztira 6700 ikaslek egin dute **Ingeleseko hizkuntza gaitasuna** proba. Hona hemen bildutako datu orokorrak:


Egindako probak, guztira:	6700
Lortutako gutxieneko puntuazioa:	1
Lortutako gehieneko puntuazioa:	39
Batez besteko puntuazioa:	19,70
Desbideratze tipikoa:	7,68

Alderdi azpimarragarriak:

- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 1 izan da eta handiena 39 puntu.
- Desbideratze tipikoa 7,68 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 39), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun moderatua dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

5.3.2 Emaitzak generoaren arabera

Atal honetan, **Ingelesezko hizkuntza gaitasuna** proban lortutako emaitzak erakusten dira, ikasleen generoaren arabera bereizita.



Neskek lortutako emaitzak, batez beste, mutilek lortutakoak baino handiagoak dira, eta, aldi berean, ez dira hain barreiatuak. Ikus daitekeenez, neskek lortutako puntuazioa mutilek lortutakoa baino 1,1 puntu handiagoa da: alde hori arintzat jo daiteke, probaren desbideratze tipikoaren herena baino txikiagoa baita (7,68).

5.3.3 Gaitasun mailak

Ikasleek zuzen erantzun dituzten galderak aztertuz, jakin daiteke zer dakiten egiten eta zer ez dakiten ongi egiten. Horrela, lau konpetentzia maila ezartzen dira: *1. maila, 2. maila, 3. maila eta +3. maila*.

Horren arabera, 1. eta 2. mailako ikasleek ez dute lortu konpetentzia, eta 3. edo +3. mailakoek espero den konpetentzia maila dute.

Oro har, maila bakoitzari lotutako konpetentziak honako hauek dira:

1. maila	2. maila	3. maila	+3. maila
Maila horretan dauden ikasleek uste baino hizkuntza-gaitasun txikiagoa dute ingelesez. Ahozko mezuak ulertzeko zailtasun handiak dituzte. Testuetan gai dira informazio literal, esplizitu eta oso lokalizaturen bat bakarrik ulertzeko. Zailtasunak dituzte sakabanatuta dagoen informazioa aurkitzeko edo nolabaiteko interpretazio-maila eskatzen duten galderei erantzuteko. Testu etenak arazo izan daitezke.	Maila horretan dauden ikasleek espero den gaitasunaren azpitik dagoen maila erakusten dute. Audioko mezu batzuk ulertzeko gai dira, errazak badira. Testuei buruz zuzen erantzuten diete informazioa hitzez hitz ulertzea eskatzen duten galderei, baita testuaren ulermen orokorra eskatzen duten edo aldizkako testuak diren ere. Inplikaturako hiztegia 1. mailan baino zabalagoa da. Hala ere, zailtasunak dituzte testuetan jasotako informazioa interpretatzeko, ez baitira gai inferentziak egiteko.	Maila honetako ikasleek ikasturte honetan espero den gaitasuna lortu dute. Ziklo honi dagozkion audio-mezuak ulertzeko gai dira. Ondo erantzuten diete informazioa bilatzearekin lotutako galderei, literala zein ez-literala, eta ulertzen dute nola banatzen den edukia eta non bilatu informazio mota espezifiko bat aldizkako testu batean. Testua oro har ulertzen dute eta hitzetatik haratago interpretatzeko gai dira. Aurreko mailetan baino hiztegi zabalagoa ulertzen	Maila horretako ikasleek gaitasun handia lortu dute. Zikloaren mailako audio-mezuak arazorik gabe ulertzen dituzte. Maila honetako ikasleek ondo erantzuten dituzte informazioa bilatzearekin lotutako galderak, literala zein ez-literala, eta ulertzen dute edukiaren banaketa eta non bilatu informazio mota espezifiko bat aldizkako testu batean. Konplexuagoak direnak ere ebatzen dituzte, beren interpretazio-mailagatik,


Ez dituzte ulertzen zikloan oso oinarrizkoak eta landuak diren hiztegiko hitzak. Bi edo hiru esaldi bakarrik idazteko gai dira, ez dute testu oso bat artikulatzen, ulermenerako oztopo diren akats gramatikalak dituzte.	Idazketan, hainbat esaldi oso idazteko gai dira, baina beren testuak loturarik gabea izaten jarraitzen du, ez oso koherentea, eta batzuetan ulermena eragozten duten akatsak izaten dituzte.	dute, eta, horri esker, egoerak eta ekintzak ulertzeko zirkulua zabaltzen dute. Ulermena eragozten ez duen okerren batekin testu koherentea eta erdizka kohesionatua eraikitzeke gai dira.	hiztegiagatik edo testuaren egitura sintaktikoagatik. Zikloaren eskola-mailarako testu koherentea eta zuzena idazteko gai dira, eta kohesio-mekanismo askotarikoak erabiltzen dituzte. Laburbilduz, ebaluatutako hiru trebetasunetan gaitasun handia erakusten dute.
---	---	--	---

Mailen zenbakizko zehaztapena

Ikasleak maila jakin bati esleitzea proban lortzen den puntuazioaren arabera da.

Hurrengo taulan konpetentzia maila bakoitza zehazten duten puntuazio-tarteak eta maila bakoitzean dagoen Nafarroako ikasleen ehunekoa islatzen dira:

	Puntuazio-tarteak	Ikasleen ehunekoa
1. maila	[0, 10)	8,73%
2. maila	[10,15)	21,49%
3. maila	[15,31)	59,54%
+3. maila	[31,39]	10,24%



Alderdi azpimarragarriak:


- Hamar ikasletik zazpik baino zertxobait gehiagok (% 69,78) 3. maila edo +3. maila erdietsi dute; gai dira ebaluatu diren hiru trebetasunetan planteatu diren prozesuak gauzatzeko. Prozesu horiek beren eskolatze mailari-dagozkio. Ikasleen % 10,24k bikaintasun-maila lortu du.
- Hamar ikasletik batek baino zertxobait gutxiagok (% 8,73) neurri bereziak behar ditu, behe-beheko mailan dagoelako.
- Bost ikasletik bat (% 21,490) tarteko egoeran dago, ikasmailari dagozkion atazen parte bat egiten dute.

5.4 Puntuazioen banaketa

Atal honetan, **Ingeleseko hizkuntza gaitasuna** proban lortutako zuzeneko puntuazioen banaketari erreparatuko diogu.

Ezkerreko taulan, proba honetan behatutako parametro estatistikoak erreplikatzan ditugu, eta grafikoak lortutako zuzeneko puntuazioen banaketa islatzen du:

	IHG
Egindako probak	6700
Batez besteko puntuazioa	19,70
Desbideratze tipikoa	7,68
Asimetria	0,32
Kurtosia	-0,68



Alderdi azpimarragarriak:

- Puntuazioen banaketak, banaketa normalarekin alderatuta, asimetria arina du eskubira, eta ez da hain zorrotza.
- Fisherren asimetria koefizientea 0,32 da, eta hori da asimetria eskubikoa izatearen arrazoiak. Izan ere, batez bestekotik beherako puntuazioetan guztizko maiztasuna goikoetan baino handiagoa da (% 54,07 vs % 45,93), eta aldakortasuna txikiagoa.
- Fisherren kurtosi koefizientea -0,68 da; horra zergatik den kamutsagoa (banaketa platikurtikoa), hau da, puntuazioen kontzentrazio txikiagoa dago batez bestekoaren inguruan.

6. ALDAGAI SOZIOEKONOMIKO ETA KULTURALA

Edizio honetan, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztiek aldagai soziokulturalari eta ekonomikoei buruzko testuinguru-galdetegi bat bete dute, eta dagokion Indize Sozioekonomiko eta Kulturala (ISEK) kalkulatzeko informazioa atera da.

6.1 ISEK lortzea eta erabiltzea

Galdetegiaren helburu nagusia da informazioa biltzea Indize Sozioekonomiko eta Kulturala (ISEK) egiteko. Indize hori, lehenik, ikasleari dagokio, eta, bigarrenik, ikastetxeari. Indize honek kontuan hartzen dituen aldagaiak dira PISA proiektuan eta Hezkuntza Ebaluazioaren Institutu Nazionalak autonomia erkidegoekin elkarlanean egindako ebaluazio diagnostiko orokorretan erabilitako antzekoak. Indizea prestatzeko aldagaiak lau hauek dira:

- Gurasoen edo legezko tutoreen ikasketa-maila (bietako edozeinek duen handiena hartzen da kontuan), behetik gorako 5 kategoriaren sailkaturik dagoena.
- Gurasoen edo legezko tutoreen egiten duten lana (bietako edozeinen lan-kategoriarik handiena hartzen da kontuan, betiere horietariko batek lan egin eta soldata bat irabazten badu). Behetik gorako 5 kategoriatan dago sailkatuta (0 balioa ematen da bietako batek ere ez badu lan egiten eta soldata bat irabazten).
- Etxean dituzten irakurtzeko liburuen kopurua, behetik gorako 5 kategoriatan sailkaturik.
- Zenbait kontsumo ondasun etxean ba ote dituzten. Bost hauek hartu dira: mahai gaineko ordenagailua edo ordenagailu eramangarria (ikastetxean eman dizutenaz bestelakoa), ikasten laguntzen dizuten entziklopediak edo kontsulta-liburuak (paperezkoa edo digitala), aldizkari espezializatuak (informatika, natura, literatura, etab.), tableta eta norberaren gela izatea. Orik 5era bitarteko balioak eman daitezke, etxean dauden kontsumoko ondasunen arabera.

Pisu bera eman zaie aurreko lau aldagaiei, halako moldean non haien balioak zenbatuta lortzen baita ikasle bakoitzari dagokion ISEKaren banakako balioa (banakako ISEKaren zuzeneko puntuazioak). Ikasleei esleituriko puntuazioak eraldatu egin dira, batez bestekoa 0 eta desbideratze tipikoa 1 dituen banaketa normalaren arabera, hartara, 0 izanen delarik Nafarroaren batez bestekoa (banakako ISEKaren puntuazio estandarizatuak). Ikastetxe bakoitzari ISEK balio bat esleitu zaio; hots, ikastetxe horretako ikasleen indizeen batez bestekoa (ikastetxeko ISEKa).

Ebaluazio azterlan guztietan egiaztatzen ari da ikasleek probetan duten errendimenduaren eta haien maila soziokulturalaren artean korrelazio moderatua dagoela. Txosten honen 7.3 atalean daude ikastetxeetako batez besteko puntuazioen eta batez besteko ISEK balioen arteko korrelazioak, konpetentzia bakoitzaren arabera banatuta, eta ikastetxeko Errendimendua-ISEKa erregresio-zuzenen grafikoak.

- Errendimenduaren eta ikastetxeko ISEKaren arteko korrelazio-koefizienteek adierazten dute ikastetxeko ISEKak eta proba bakoitzean lortutako errendimenduak nolabaiteko korrelazio positiboa dutela. Hori handiagoa da koefizientearen balioa 1etik zenbat eta hurbilago egon.
- Ikastetxeko ISEKak ikastetxeen batezbesteko puntuazioen arteko bariantzaren edo aldean parte bat azaltzen du. Bariantza azaldua biderkadura honek ematen du: $100 \cdot R^2$, non R^2 erregresio-grafikoetan ageri den determinazio-koefizientea den. Biderkadura hori konpetentziaren arabera aldatzen da.
- *Errendimendua-Ikastetxeko ISEKa* izeneko erregresio-zuzenak malda positiboa dute; horrek esan nahi du ikastetxeko ISEKa handitu ahala batez besteko errendimenduak ere gora egiten duela. Espero

izatekoa den eraginaren intentsitatea konpetentzia batetik bestera aldatzen da: ikastetxeko ISEKaren balioa igotzen den unitate bakoitza loturik dago, ikastetxearen batez besteko puntuazioaren igoerarekin. Hurrengo tauletan datu hori gradiente modura ageri da.

Taula honetan, proba bakoitzean lortutako **korrelazio-koefizienteen** eta **100* R2** koefizienteen balioak aurkezten dira:

	Korrelazio koefizientea	Azaldutako bariantzaren (100*R2) ehunekoa (%)	Erregresioko malda zuzena (gradientea)
Gaztelaniazko hizkuntza gaitasuna	0,625	39,04	60,97
Euskarazko hizkuntza gaitasuna	0,548	30,08	70,73
Matematikarako gaitasuna	0,583	34,03	52,22
Ingeleseko hizkuntza gaitasuna	0,546	29,79	55,06

Esan behar da ISEKa ez dela errendimendua azaltzen duen aldagaia, baina aldagai iragarle modura erabiltzen da, hau da, ikastetxeei puntuazioak eman dakizkieke beren ISEKaren arabera eta gero ikastetxeak lortutako balio hori benetan lortutako emaitzarekin konparatu. Ikastetxeetako txostenetan ikastetxeko puntuazioa irudikatu da "ISEK-Errendimendua" motako erregresio-grafikoan; horri esker, lortutako puntuazioa ISEK balioaren arabera iragartzen ahal den puntuazioarekin erka dezakegu. Grafiko horretan ikastetxeek duten posizioari dagokionez, 3 kasu desberdin ditugu:

- Erregresio-zuzena baino gorago dauden ikastetxeak: haien maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEKa) arabera iragarritakoa baino batezbesteko handiagoa lortu dutenak.
- Erregresio-zuzena baino beherago dauden ikastetxeak: haien maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) arabera iragarritakoa baino batezbesteko txikiagoa lortu dutenak.
- Erregresio-zuzenean berean dauden ikastetxeak: iragarritako puntuazioa lortu dutenak.


Erregresioko grafikoetako informazioak testuinguruan kokatzen ditu ikastetxeen emaitza orokorrak, ikastetxeko ikasleen batez besteko ezaugarri soziokulturalen arabera, eta haien emaitzak aukera ematen du Nafarroako batezbestekoarekin modu justuagoan konparatzeko. ISEKa 0 baino handiagoa duen ikastetxe batek batez besteko puntuazioa (500 puntu) baino puntuazio handiagoa lortu beharko luke eta ISEKa 0 baino txikiagoa duen ikastetxe batek 500 puntutik beherako batez besteko puntuazioa lortzea espero izatekoa da. Baina ikusten ari gara ez dela beti iragarpen generiko hori betetzen, eskolako errendimenduan izaten baitira beste aldagai batzuk, hala nola norberaren lana, ikasteko estrategiak, familiako itxaropenak, beren irakasleen itxaropenak, etab.

Ikastetxe bakoitzak dituen ISEK balioa eta erregresio-zuzenarekiko kokapena gorabehera, guztietan hobetu daiteke lortutako emaitza, bi aldagai horien arteko erlazioa ez baita determinista edo funtzionala; izan badira ikasleen errendimenduan eragiten duten beste aldagai batzuk. Ondorio horretara irits gaitetzke, erregresio-grafikoetan ikusten baitugu ISEK bera duten ikastetxeek emaitza desberdinak lortzen dituztela eta, beraz, ekitate desberdina dutela, erran nahi baita, ikasleen maila sozioekonomiko eta kultural txikiagoagatik sortutako hasierako desabantailak konpentsatzeko gaitasun desberdina. Ikastetxeko zer aldagaik eragiten

duten modu batera edo bestera ikertzea interesgarria da ikastetxean berean hobekuntza neurriak hartzeko. Hala eginez gero, hezkuntza sistema osoa hobetuko litzateke.


Jarraian, proba bakoitzerako, **ikastetxeko ISEK** puntu-hodeia aurkezten da – **Puntuazio eraldatua**, dagokion **erregresio-zuzenarekin**. Ardatz horizontalean irudikatu dira ikastetxeetako ISEK balioak eta ardatz bertikalean, berriz, ikastetxe bakoitzaren batez besteko puntuazio normalizatua konpetentzia bakoitzean. Puntu bakoitzak ikastetxe bat irudikatzen du eta erdiko puntua (ISEK = 0, puntuazio normalizatua = 500) Nafarroako batezbestekoari dagokio. Ikastetxeen tamaina askotarikoa denez (1etik 132 ikaslera bitarte), erregresio-zuzenaren koefizienteak lortu dira ikastetxe bakoitzaren datuak haztatuz, ikastetxe horietako bakoitzean ebaluatutako ikasleen kopuruaren arabera.

6.1.1 Erregresio-zuzena: GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA GAITASUNA




Ikastetxeen batez besteko puntuazio normalizatuen arteko alderik handiena 409,05 puntukoa da.

6.1.2 Erregresio-zuzena: EUSKARAZKO HIZKUNTZA GAITASUNA




Ikastetxeen batez besteko puntuazio normalizatuen arteko alderik handiena 343,38 puntukoa da.

6.1.3 Erregresio-zuzena: MATEMATIKARAKO GAITASUNA



Ikastetxeen batez besteko puntuazio normalizatuen arteko alderik handiena 347,76 puntukoa da.

6.1.4 Erregresio-zuzena: INGELESEZKO HIZKUNTZA KONPETENTZIA




Ikastetxeen batez besteko puntuazio normalizatuen arteko alderik handiena 403,77 puntukoa da.

6.2 ISEKaren banaketa

6.2.1 BANAKAKO PUNTUAZIOAK


Ondoko grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko banakako ISEKaren puntuazio zuzenen banaketa:



Alderdi azpimarragarriak:

- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 2 izan da eta handiena 20 puntu.
- Desbideratze tipikoa 4,0126 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren – 12,106- % 31,14), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun moderatua dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.
- Banakako ISEKaren puntuazio zuzenen banaketa, banaketa normalarekin alderatuta, asimetrikoa gertatu da ezker aldetik, eta ez hain zorrotza.
 - Fisherren asimetria koefizientea -0,149 da, eta hori da asimetria ezkerrekoa izatearen arrazoia.
 - Fisherren kurtosi koefizientea -0,795 da.


Eskuineko grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko banakako ISEKaren puntuazio normalizatuen banaketa. Kontuan hartu horren forma aurrekoarena bera dela, aipatu behar bada ere balioak -2,81 eta 1,82 artekoak dituela, batez bestekoa 0 duela eta desbideratze tipikoa, berriz, 1.



6.2.2 IKASTETXEKO PUNTUAZIOAK

Ebaluazioan sartuta dauden 214 ikastetxeetako bakoitzari "ikastetxeko ISEKa" eman zaio; ISEK horren balioa lortzeko, ebaluatutako ikasleen banakako ISEK estandarizatuen batezbestekoa egin da. Ikastetxeek -2,02 eta 1,59 arteko ISEK balioak dituzte; horrek agerian uzten du ikastetxeen batez besteko baldintza sozioekonomikoak askotarikoak direla.

Grafikoan irudikatzen dira ikastetxeko ISEK balioak. Ikastetxeak 4 taldetan sailkatu dira, ikastetxeen ISEKaren maiztasun banaketaren kuartilak bereizten dituzten 3 atalaseen arabera.



4 taldeak zehazten dituzten 3 atalaseak -0,4566, -0,0810 eta +0,4141 dira.

Sailkapen horretan 57 ikastetxek dituzte ISEK balioak lehen kuartilaren barruan (maila baxua, ISEKa -0,4566 baino txikiagoa), 54 ikastetxek bigarren kuartilaren barruan dituzte ISEK balioak (maila baxua-ertaina, ISEKa -0,4566 eta -0,0810 artean), 49 ikastetxek hirugarren kuartilean (maila ertain-altua, ISEKa -0,0810 eta +0,4141 artean) eta 51 ikastetxek goiko kuartilean (maila altua, ISEKa +0,4141 baino handiagoa).

Nafarroako Hezkuntza Departamentua

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

Ebaluazio Atala

Iruñean, 2025eko ekainaren 30ean